



Emakume izatea, bai poza!

I ERANSKINA



Indarkeria sexistaren prebentzioa



Emakume izatea, bai poza!

II ERANSKINA

ZULO BAT LORATEGIAN

Nere auzoko etxe guztiak berdinak dira. Leihoak dituzte eta hauetan kolore guztietako gortinak. Txoriz betetako teilatuak daude arrapaladan ura bideratzen duten ubideak, bertan, intsekturen batek marinela baillizan jolasten du. Barrualderantz irekitzen diren ateak, zereginetan edo eserlekuan telebistari begira dagoenari deitzeko txirrin ederrekin.

Etxe hauetan guztietan bizitza pertsonen joan-etorria da, leihoak irekitzen eta ixten dira, bertako bizilagunak landareen zainketan ahalegintzen diren bitartean, geldiro hazten doazen lorontzi eta lorategiak daude.

Dena egunerokoa da, inork ez daki ezer inori buruz eta aldi berean dena daki, norberaren lanaz, seme-alaben kopuruaz, kotxearen koloreaz, baita bere futbol taldeaz ere, dena ezaguna da edo ustez ezaguna.

Nere auzoa ez da bestelakoa, baina gaur nire bizilaguna lorategian zulo bat egiten ikusteak harritu nau, kaleak isiltasuna zerion eta denek so egiten genion baina pena besterik ez genuen sentitzen. Kale hura orain ezberdina da eta bere etxeak ez dauka gainerakoen antzik, kanpotik ezer aldatu ez bada ere, lorategiko zulo beltz horrek gure harmonia perfektu horretan zentzugabekeria ematen du.

Nire bizilagun gaztetxoak lorategiaren erdi-erdian egin du zuloa, sarrerako atletik gertu, izugarrizko leizea eta inguruan, dotore kimatutako eta kolorez eta lurrinezko harmoniaz antolatutako lore eta zuhaixkak.

Inork ez zuen ulertzen bere jokaeraren zergatia, baina ekintza horrekin auzoaren egunerokotasuna eta harmoniaren apurketa begiztatzen zen. Inork ezin zuen ulertu ezta onartu ere, amildegi arriskutsua zirudien leize sakon eta beltz hori bere etxeko atearen aurrean inork ez zuen nahi. Baina inork ez zuen hitz egiten eta inork ez zuen ezer egiten, besteen kontuetan erabakitzea ez zegokiolako.

Inork ez zuen ezer egin eta zulo hura egun gutxiren buruan putzu handi eta beltza bihurtu zen eta bere barruan bizilagun gaztetxoa galduz joan zen.

Egun batean dena lehortu egin zen eta etxeak hilda zegoela zirudien kanpotik, gauza bakarra topatu zen amildegi ertzean, ohar bat:

“Hau da neure ama bizi izan zen amildegia non pixkanaka-pixkanaka ni neu galdu naizen.”.

Egilea: Carmen Menéndez Oubiña.



Emakume izatea, bai poza!

III ERANSKINA

1. Egoera:

Jon eta Miren duela hilabete elkarrekin ateratzen direla. Lagun baten etxera joan dira musika entzutera. Jon logelatik atera da, bitartean Mirenek bere amari deitu behar dio eta mugikorraren bila hasten da.

Mirenek ez du mugikorra inon topatzen. Jon bueltatzen denean galdetu dio eta erantzuna berak hartu diola izan da. Ondoren, zergatik egin duen galdetzen dionean horrek ez daukala garrantzirik erantzuten dio.

Mirenen susmoa da kontrolatu nahi duela eta eztabaidatzen hasten dira.

2. Egoera:

Isabelek bere lagun minari deitu eta esan dio berarekin hitz egin behar duela. Bere mutil lagunak ez diola usten klaseko beste mutilekin hitz egiten eta beste mutil batekin aurkituz gero iraindu eta ez duela maite esaten dio.

Bere lagunak erantzuten dio bere mutilak zelati dagoela asko maite duelako, normala dela eta ez bazion inporta, ez zuela egingo.

3. Egoera:

Koldo eta Oier institutuko patioan hizketan daude. Koldok Oierri kontatzen dio neska bat gustatzen zaiola baino ez dago ziur komeni zaion ala ez neska horrek mutil lagun asko izan dituelako. Oierrek erantzuten dio berak ere neska lagun asko izan duela baina Koldok ez dela gauza bera dio.

4. egoera:

Ireneri bi mutil gustatzen zaizkio. Bata samurra eta atsegina da, musika eta literaturari buruz hitz egiten dio eta adiskide moduan tratatzen du. Bestea, klaseko baldarra da, erakargarria eta errebolteria, emakumezalea izateagatik ospetsua.

Irenek bere lagun guztiei kontsulta egin die eta ez daki zer egin. Batzuk pentsatzen dute lehenengoa "maritxu" samarra dela eta mutilak "gaiztoak" izan behar dutela. Gutxi batzuk pentsatzen dute lehenengoa gehiago komeni zaiola. Azkenean ez daki zer egin.



Emakume izatea, bai poza!

OHARRAK

A series of horizontal dotted lines for writing notes.

Indarkeria sexistaren prebentzioa